

2021-22 MEMORIA

Pausoz pauso, mendiz mendi, gailurrez gailur



AURKIBIDEA

Sarrera	4
Irteerak	5
Lekanda	14
Elkarrizketa	15
2021Asanblada.....	18
Antolaketa	21
Materiala	23
Gizartean eta ingurumenean duen eragina	27





BERRIAK

Aurten laburbiltzen gaituen hitza “berrikuntza” da.

Mendi talde gisa hazten jarraitzen dugu hurbiltzen zareten pertsona guztiei esker.

Sarrera

BERRITASUNEZ BETETAKO URTEA

Beste behin, Aitzeder Mendi Taldeari lotutako jarduera eta daturik garrantzitsuenak batzen dituen memoria aurkeztu nahi dizuegu. Oraingoan, 2021-2022 kurtsoa birpasatzea tokatzen zaigu, klubaren jarduera normalerako itzulerak markatu izan duena. Urtebete eta erdi baino gehiago pasatu ostean, irailean hilabetero irteera bat antolatzekeo erritmoa berreskuratu genuen eta zorionez, ez dugu bakarrik mantendu, baizik eta jendea mendi gogoz beterik nola hurbiltzen zitzagun ikusi ahal izan dugu.

2021-2022 kurtsoa berritasunez beterik egon da, besteak beste, hainbat bazkide berrien aurrerapausoa borondateko gida bilakatzeko eta kluba laguntzeko irteeren antolakuntzan. Errefortzu hau izugarri lagungarria izateaz gain, jende gehiago klubaren eguneroko bizitzan sartzeko modu ederra izan da. Garai bat generaman horrelako zerbait buruan, baina kurtso hau izan da praktikan jarri ahal izan dugun momentua eta ezin dugu baino eskertu kurtso honetako irteerak gidatu dituzten pertsonak, hala nola etorkizunean gauza bera egiteko euren burua eskaini dutenak.

Aurtengo beste berritasun garrantzitsu bat bus pribatuan antolatutako lehenengo irteera izan da, oso arrakastatsua izan zen formatua eta zalantzarik gabe datozen kurtsoetan mantenduko duguna. Argi dago gero eta gehiago hazten ari garela eta honek jarduera gero eta erakargarriagoak antolatzekeo eta bazter berriak ezagutzekeo aukera ematen digu, betiere gure lekualdaketek ingurumenarekiko ahalik eta eragin txikiena izan dezaten saiatuz.

Bestalde, kurtso honetan Bilboko Udalak utzitako espazio bat estreinatu dugu, Aitzeder Mendi Taldearentzat

aurrerapauso bat izan dena. Lokala esleitu zigutenetik, hilabete guztietako lehen eta hirugarren asteazkenetan ireki dugu. Honek klubak materiala alokatzekeo, tramiteak egitekeo edota formakuntzak antolatzekeo espazio bat izatea ahalbidetu du. Beste era batera esanda, txoko mendizale txiki bat ireki dugu Zabala auzoan.

Azkenik, kurtso hau aurpegi berriz beteta egon da. Orain dela 5 urte jaio ginenetik, etengabe egon gara hazten eta etengabe batu zaizkigu bazkide zein irteeretara bakarrik animatzen diren pertsonak. Hala ere, kurtso honetako gorakada paregabea izan da. Inoiz baino mendi gogo handiagoa daukagu eta horrenbestez, hemen duzue 2021-2022 memoria. Orain dela gutxi gehitu zaretenentzat, gu ezagutzekeo modu on bat izatea espero dugu eta gurekin sasoi bat daramazuenontzat, begirada bat atzera botatzeko, urteko jarduera berrikusteko eta etorkizunean pentsatzeko modu bat.



Irteerak



IRTEEREN DATUAK

9 IRTEERA

108 MENDIZALE DESBERDIN

247 IRTEERETAKO BERTARATZEA

EGOARBITZA

Irailak 19, igandea

Altitudea: 733m | Sarbidea: Ermua | Parte-hartzaileak: 27

Igande hartan, irteera atsegina izan genuen Ermutik Elorrioraino. Aspaldi ez genuen guztiok batera irtenbiderik egiten, osasun egoera zela eta. Edukiera txikia izan arren eta osasun-neurriak mantendu arren, konpainiaz eta ibilbideaz gozatzen dugu. Oraingoan 27 “mendizale” inguru joan ginen, batzuk klubean ezagunak eta beste batzuk berriak, baina ilusio berarekin.

Ibilaldian gailurra egin genuen Egoarbitzan 733 m eta gero Intxortan 743 m. Hasieran Aixolako urtegira igo ginen lehenengo mendira igotzen hasteko. Egoarbitza egin ondoren, Elgetara jaitsi ginen, mendi erdian dagoen herri polit batera. Herrian geldialdi bat egin ahal izan genuen hamaiketakoa hartzeko.



MANDOIA

Urriak 16, larunbata

Altitudea: 626m | Sarbidea:
Bedia | Parte-hartzaileak: 23

Ibilbidean Mandoia 626 metroko gailurra egin genuen. Goitik Bilbo eta kostaldea ikus zitezkeen, nahiz eta lainoak itsasoa ikustea eragozten zuen.

Leku egokia da inguruko mendiak identifikatzeko.



UBIETA

Azaroak 28, larunbata

Altitudea: 632m | Sarbidea: Gueñes [Eguraldiagatik bertan behera gelditua]

KALAMUA

Altitudea: 770m | Sarbidea: Eibar | Parte-hartzaileak: 25

Kalamuarako igoera, Eibartik, Arrateko Ama Birjinaren bidetik.



GANEKOGORTA

Abenduak 31, ostirala

Altitudea: 998m | Sarbidea: Bilbo

Oraingo honetan, garai hartan bizi genuen egoera zela eta, ez genuen urtea gailurrean guztiok batera amaitu. Pertsonak beren kontura nahi zuten mendira joan, argazki bat atera eta AitzederMTrekin partekatzeraz gonbidatu genituen collage bat egin ahal izateko.

URTE BERRI ON!
2022



MONTES DE TRIANO

Urtarrilak 22, larunbata

Altitudea: 887m | Sarbidea: Sodupe | Parte-hartzaileak: 25



Enkarterriak Meatzaldearekin lotzen dituen irteera batekin hasiko dugu urtea. Trianoko mendiak mendigune garrantzitsu bat dira, Nerbioi ibaiak Abrara, Kadagua eta Barbadun ibaien bokalean mugatzen dutena. Mendi horiek oso ezagunak dira, garai batean meatzaritzaren jarduera handia baitzen garai batean, eta industria siderurgiko ahaltsu baten eragile izan baitira.

Sodupeko udalerritik abiatzen da ibilbidea, eta trenez joango gara hara. Lehenengo gailurra eta irteeraren gailurrik enblematikoena igotzen hasiko gara: Eretza (887 m), Sasiburu mendilerroko gailurrik altuena, Kadagua ibaiaren ezkeraldea menderatzen du.

Gailurra konkistatuta, Pico de la Cruzaraino (803 m) joango gara. Gailurreko gurutze metalikoagatik erraz bereizten da. Mendigunearen hegoalderago dagoen arroksua da, Galdames bailara menderatzen duena.

ALONSOTEGI, Pagasarri

Otsailak 13, igandea

Altitudea: 671m | Sarbidea: Alonsotegi | Parte-hartzaileak: 29

Irteera ez da oso ezaguna, baina erraza eta guztientzat egokia. Alonsotegiko udalerrira joango gara garraio publikoan, eta Pagasarriko igoera hasiko dugu Azordoiaga auzotik.

Ibilbidea asfaltozko lehen zati batetik igarotzen da, eta, ondoren, inguruko ohiko baso-pistara igarotzen da. Eskura dugun bide bakarrari jarraituz, Pagasarriko iturritik hurbil dagoen bidegurutzera iritsiko gara. Han, ezkerretara egingo dugu bira, eguneko gailur bakarrera iristeko: Pagasarri (671m).

Handik, bide zaharretik mendiko aparkalekuraino joango gara, San Adrian auzoko irteera amaitzeko.



OJOS DEL DIABLO

Martxoak 12, larunbata

Altitudea: 409m | Sarbidea: Sonabia | Parte-hartzaileak: 27

Hasieran garraio pribatua erabiliz egiten dugun lehen irteera. Parte-hartzaileen artean antolaketak ez du konponbiderik ematen.

N-634 errepide nazionaleko 161. km-an dagoen aparkalekuan hasten da ibilbidea, Laredorantz. Handik, zuzenean Sonabiako hondartzara eramango gaituen bidea hartuko dugu. Puntu horretan, igoera bat hasiko dugu, eta 350 bat metroko altitudea salbatu eta Ojos del Diablo (409 m)-ra iritsiko gara. Oriñon eta balea ikusiko ditugu.

Handik, beherantz doan bidexkatik jarraituko dugu, eta berriro ere aparkalekura iritsiko gara, irteera eder honen hasierara.



KAMARAKA

Apirilak 10, igandea

Altitudea: 797m | Sarbidea:
Arrankudiaga | Parte-hartzaileak: 27

Ibilbide polita eta ez oso zorrotza; hasieran garraio publikoan ibili ahal izan gara. Arrankudiagako udalerritik hasita, lehenik Goikoganera (702 m) eta gero Mugarriluzera (735 m) eta azkenik Kamarakara (797 m). Eguneko gailurren helburua bete ondoren,

Ganekogorta mendigunea inguratuz jaisten hasi gara Pagasarrira iristeko, eta hortik abiatu gara, Bilboko San Adrian auzora.



LEUNGANE

Maiatzak 14, larunbata

Altitudea: 1008m | Sarbidea: Durango | Parte-hartzaileak: 32

Aramotz mendilerroa zeharkatzen duen zeharbide ederra, Urkiolako Parke Naturaleko eremu ez oso batetik igarotzen dena. Durangora joango gara garraio publikoan. Leunganera (1008 m) igotzen hasiko gara, eta 900 metroko desnibela gainditu beharko dugu 8 km-an.

Gailurrean Anboto, Durangaldea eta Gorbeia ikusteko aukera izan dugu. Mahastiak lagun izan ditugu Dimarako jaitsieran, aurretik aprobetxatu eta bigarren gailur bat egiteko: Artaungan (905 m).



AIZKORRI

Ekainak 12, larunbata

Altitudea: 1523m | Sarbidea: Zegama | Parte-hartzaileak: 32

Irteera inflexio-puntua da Klubarentzat, Zegamara autobus pribatu batekin joan ahal izan baita. Ibilbidea Zegaman hasi zen, eta handik altuera irabazten joan ginen Sancti Spiritu ermitara iritsi arte. Hortik ekin genion azken igoerari, konplikatuagoa baina edertasun apartekoa. Gailurra egin ondoren (1523m), Urbiako zelaietara jaitsi ginen, eta han indarrak hartu genituen azken jaitsierari ekiteko Arantzazuko santutegiraino. Santutegi hori Bilbora itzuli aurretik bisitatu ahal izan genuen.



Lekanda

PAGOMAKURRETIK, AREATZA

FITXA



Denbora: 2h 15' (1h 10' igotzen)

Zailtasuna: Erraza. *Itxinatik doan tartean adi joatea gomendatzen da. Eguraldi txarrarekin saihestu.*

Altitudea: Lekanda 1.302m, Igalirrintza 1.296m

Nola heldu: Bizkaiatik, N-240 hartu Areatzaraino. Ibilbidea frontoiaren atzean hasten da, 9 km-ko pista Pagomakurreraino.

Beste aukerak: Urigoiti (Orozko) / Langreabe (Zeanuri)

Intereseko puntuak: Bakearen Amaren ermita y Pagomakurreko aisialdirako gunea . Arraba. Itxinako karsta.

Bitxikeriak: Lekanda da Itxinako gailur nagusia, Arraba eta Pagomakurrekiko hurbiltasunak karst horren igoera azkar eta errazenetako bat izatera ahalbidetzen du.

RUTA: Pagomakurre (883 m), Lekandaren oinean dago (1.302 m). Bakearen ama ermitan askaria hartzeko lekua eta iturria daude . Bide zabal eta iragankor batetik igarota Arrabako zelaietara eramango gaitu.

Arrabako meseta belartera iritsi ondoren, eskuinera biratuz, Igalierantz/Arrabatxuko atea (1163 m) osatzen duen gailurrera iritsiko gara.

Hura gaindituta, Arrabatxuko zelaia topatuko dugu, Arrabakoa baino estuagoa. Leku horretatik, bidexka balizatu bat igotzen da lapiazaren eta basoaren (NE) lurretik, Lekanda gailurrera iristeko (1.302 m).

Iturria: "Ascensión a las 129 cumbres centenarias", liburua. Web-orria: mendikat.net

Oharra: fitxa hau kontu handiarekin idatzi da, akatsen bat izan lezake. Ikustekotan, eskertuko dizugu taldeari jakinaraztea

Elkarrizketa

IRENE SARRIONANDIA, mendi kirolaria



“Aurrera” dokumentalaren argazki bat (Mikel Peña)

Irene Sarrionandia Unzuetarekin hitz egin dugu. 73 urterekin, bera izan da Camille extreme lasterketa 16 ediziotan osatu duen pertsona bakarra.

Duela 40 urte mendira korrika igotzea otu zitzaion. Orduan ez zuen emakumerik bakarrik korrika ikusten mendian gora eta behera.

Kaixo Irene, 40 urtez mendietatik bueltaka egon ondoren aurten 73 urterekin zeure 16 garren *Camille Extreme* burutu duzu baina zeu zer gosaltzen duzu?

Kar kar, ba egia esan oraintxe bertan ez dut gosaltzen, noiz behinka entrenamendu gogorra edo luzea denean bai.

Zer erakartzen zaitu hainbeste *Camille extreme*-tik?

Ba egia esan, munduan zehar nahikotxo ibili naiz, Andeetan dezente, Alpeetan ere, baina niretzako Pirinioak gehien disfrutatzen ditudanak dira. Kondizioak ez dira hain muturrekoak eta neguan, udazkenean zein udaberrian egin daitezke. Beti dago nora joan eta zer egin. Beste aldetik, herria bera oso gustuko dut eta bertoko jendea beti maitasunarekin tratatu nau, oraindik gogoratzen dut aldapan gora nengoenean bota zidaten: “*fenomena*”, ez zait ahaztu, animoak ematen dizkizu.

“Aurrera” dokumentalean azaltzen zenuen bezala aitzindari bat izan zinen jarduera horretan, zure inguruagatik epaituta sentitu zinen uneren batean?

Ba egia esan, ez hainbeste. Jendea ohitu zen neu korrikan ikusten zein ez zekiten noraino ailegatzten nintzen, ez zekiten 10 km edo 40km egiten banituen. Ni ez naiz “bicho raro” sentitu, egia da eduki dudala zortea, zeren eta garai hartan emakumeak orokorrean mendian ez ziren bakarrik ibiltzen.

Hori ez zegoen ondo ikusita edo norbaitekin joan behar ziren. Neu bai eduki nuen aurpegi gogorra hori egiteko eta oso garrantzitsua izan zen nire barnerako.

Zeuretzat mendiak zer irudikatzen du?

Nik pentsatzen dut oso kalekoak bihurtzen ari garela eta pentsatzen dugula natura hor dagoela geure “ofertarako” edo argazki politak egiteko, baina nik inoiz ez dut lotura hori inola gabe galdu, eta zenbat eta ordu gehiago pasatu naturan, hobeto. Neuretzat natura baratza da, zuhaitzak dituen ingurua, lurra eta belarra, txoriak eta katuak... Egunean zehar orduak emango ditut naturarekin ahal dudana neurrian.

Gertuen daukadan mendia 600 metrokoa da eta ez da oso altua, baina nahikoa. Gaur bertan bainatu naiz itsasoan eta hondarrean ibili oin hutsik eta hori da niretzako aberastasuna. Esan nahi dudana da neuretzat garrantzitsuena ez dela bakarrik mendira joatea, natura berarekin kontaktuan egotea baizik eta horren barruan mendi guztiak sartzen dira, handiak ala txikiak, zailak eta ederrak. Hori da osasungarria.

Hainbat emakume ditugu gure klubean, seguraski badirela horretako hainbat erronka berriak hartu nahi dituztenak, aholkuren bat haientzat ?

Ez naiz inor aholkurik emateko, baina mendia praktikatzea. Eurak bertan badaude gogoko dutelako izango da, eta eurak ikasiko dute zer gustatzen zaien : *zein motatako mendiak, zein zailtasunekoek, zelako terreno eta aldaketak*. Egia da askotan guk jartzen dizkiogula limiteak geure buruari eta muga mental horiek kentzea zaila dela.

Euskal Herriko txoko bat aukeratu beharko bazenu, mendi egun pasa bat lagunekin edo familiarekin partekatzeke, non izango litzateke?

Ba, Anbotoren ingurua etortzen zait burura, txikitan bertan bizi izan nintzen gure amamaren etxean eta askotan Anbotorekin amesten dut. Baina, aukeratu beharko banuke, Ubide aukeratuko nuke. Ubidetik hainbat bide ateratzen dira Aizkorrrira, Atzanburu, Gorbeia...

Eta amaitzeko, amets edo erronkarik bete gabe?

Ba espero zitekeena, Himalaiarekin amestu izana, baina nik 6000 metroko nahiko egin ditut eta altueran ez naiz gaizki moldatu, baina egia esan, altueran egoteak dendatxoan sartuta, hotza pasatzen eta erdi izoztuta ez dit hainbeste erakartzen.

Agian 8000ak baino gehiago, pixka bat baxuagoak 6000 ta pikukoak erakartzen naute Baina ez dakit antolamenduagatik merezi duen hain urrutira joatea, gertutxoago ditugunetan hain ondo pasatu ahal dudanean.

Momentuz nire buruan dagoen zalantza datorren urtean (74 urterekin) ia lasterketaren bat egingo dudan ala ez. Segun zenbat denbora ematen dudan proba amaitzeko, zeren eta duintasunarekin amaitu nahi dut. Nire ametsa egia esan, gustatuko litzaidake hiltzen naiz egunera arte mendira joateko gaitasuna edukitzea, bai mendi erraz batera, etxean ondokoa edo dena delakoa. Gustatzen zaidan guzti hori egiteko kapaza izatea.

2021 Asanblada AZAROAN EGINA

Batzar Orokorra urtero egiten da, eta klubeko adin nagusiko bazkide guztiek dute hizpidea eta botoa izateko eskubidea. Klubak gardentasunez jokatzear gain, Batzarrak aukera ematen du erabaki garrantzitsuak taldean hartzeko, eta, hala, bazkideen taldeak gidatuko du klubaren norabidea.

Aurten, azaroaren 13an, larunbatean, egin zen batzarra, Bilboko Ibaiondo gizarte-etxean, "La Bolsa edo Yohn Jauregia"n. Zegoen Zuzendaritza Batzordea izan zen buru, 4 urteren ondoren berriro behar baitzen, eta 18 bazkidek parte hartu zuten.

Batzarra gaur egungo egoera eta Klubaren martxa aurkeztuz hasi zen. Pandemia zela eta, ezin izan zenez aurrez aurreko jarduerarik egin, hainbat erronka proposatu ziren, Bilbo inguruko gailurretan koadernoak ezkutatzuz, bazkideak eta igo eta beren izena idatzi nahi zuten guztiak animatuz. Ekimen horiek oso harrera ona izan zuten, eta bazkideek ez ezik, mendiarekin zerikusia duten beste eragile batzuek ere baloratu zituzten. Halaber, azaldu zen jardueren geldialdia aprobetxatu zela Klubaren barne-antolakuntzako prozesua hobetzen jarraitzeko, ongintzazko gidarien taldea dinamizatzeko eta irteerei berriro ekin ahal izateko prestatzeko. Halaber, Aitzeder MTK Bizkaiko BMF eta Euskadiko EMF federazioen batzarretan izan zuen lehen partaidetza aurkeztu zitzaaien bazkideei.



Klubaren egoeraren aurkezpen labur horren ondoren, ekonomiarekin, antolaketaekin eta funtzionamenduarekin lotutako alderdi teknikoak aztertu ziren. Hona hemen alderdi horien laburpena, guztiak aho batez onartuak:

-2020-2021 kontuak onartzea eta emaitza aplikatzea: programatutako irteerak bertan behera utzi zirenez, emaitza negatiboa aurreikusten zen, azkenean espero baino hobea izan zena. Aurreikusi gabeko diru-sarrera batzuekin, hala nola, pandemiaren ondoriozko ezbehar-tasa txikia zela eta, Federazioak istripu-asegurua itzultzeari dagokiona, azkenean -146,68 €-koa izan zen emaitza. Emaitza hori gizarte-funtsera eramatea erabaki zen, aurreko ekitaldietan funts horretarako jarritako diruarekin konpentsatuta.

-2021-2022ko aurrekontua onartzea: diru-sarreraren igoera izan zuen aurrekontua aurkeztu zen, bazkide kopurua hazi egin zelako. Diru-sarreraren igoera hori gastuen igoeran ere islatu zen; izan ere, autobus pribatuarekin irteerak egitea eta mendiko materiala eta walkie berriak erostea aurreikusi zen.

- %2 lankidetzaren helmuga: Itaka-Escolapios da berriro ere. Klubeko pertsona askok ezagutzen dute fundazio hori, eta bere gizarte-jarduera garatzen du, bai maila lokalean bai globalean.

-FEDME afiliazioa: Klubak 3 urteko ibilbidea egin ondoren BMFn eta EMFn, Espainiako Mendi Kirol eta Eskalada Federazioan sartzea planteatu zen. Abantailak (deskontuak Estatuko babesleku eta lehiaketetan) eta izan litezkeen eragozpenak (gutxienez FEDME federatu kopuru bat behar izatea sarrera-kuota berriro ez ordaintzeko) aipatu ziren. Puntu hori onartzea urrats handia izan zen Klubarentzat.

Alderdi tekniko horiek aurkeztu, bozkatu eta onartu ondoren, bazkideentzat interesgarriak diren beste gai batzuk aurkeztu ziren.

Alde batetik, 2022ko jardueren egutegia aurkeztu zen, eta bertan irteera-formatu berriak sartu ziren. Garraio publikoan ohikoak direnez gain, autobus pribatua alokatuz eta auto partikularrak erabiliz jarduerak egitea planifikatu zen, ibilbidearen hasieran zuzenean geratzeko. Formatu berri horiei esker, ibilbide berriak eta erakargarriak diseinatu ahal izan ziren bazkideentzat.

Halaber, Klubaren merchandising-produktu gisa ehun-material teknikoa kamisetak edo forruak egiteko proposamena aurkeztu zen. Alderdi horretan interesa agertu zen, eta etorkizunean zehaztu gabe geratu zen diseinuari, formatuari eta abarri dagokienez.

Azkenik, eta Batzarraren helburu nagusi gisa, eztabaida interesgarriak izan ziren galde-
eskeen atalean, bazkideek Klubaren martxari buruz dituzten iritziak azaltzeko. Ohiko
esker onez eta zorionez gain (beti izaten dira ongietorriak), pertsona kopurua eta urteko
irteera kopurua aipatu ziren.

Beti bezala, Klubeko Batzordeak aprobetxatu egin zuen interesa zuen pertsona oro
animatzeko irteerak prestatzen laguntzera, Klubak bere jarduera eskaintza zabaltzeko
aukera izan dezan.



Antolaketa

Funtzionamendu egokia eta irteerak errazteko asmoz kluba hainbat taldetan banatzen da. Hona hemen horiei buruzko zenbait datu. Mila esker klubean lan egiten eta lan egin nahi dutenei.

Zuzendaritza Batzordea

Lehenengo talde hau, Zuzendaritza Batzordea, Batzar Nagusian aukeratzen da.

2020-2021 ikasturtean eratu zuten Zuzendaritza Batzordea:

- Ander Mijangos (presidentea)
- Asier Mintegi (presidenteordea)
- Mikel Silió (idazkaria)
- Mikel Querejeta (batzordekidea)

Klubaren martxa zaintzeaz eta bazkideen batzarretik eratorritako lanak egiteaz arduratzen da talde hau.

Batzordea

Bigarren taldea Batzorde Betearazlea da, 2021-2022 bitartean klubeko 7 kidek osatua: Leire Bravo, Faby Caballero, Jon Gil, Ander Mijangos, Asier Mintegi, Mikel Querejeta y Mikel Silió,

Talde hau klubaren egunerokoak betetzeaz arduratzen da.

Bazkide kudeaketa, irteerak eta kontuak prestatzea, proiektuen jarraipena egitea eta parte hartzen dugun esparru guztietako kooperazioetan aritzea, sentsibilizazioan, prestakuntzan edo parte-hartzean.



Borondatezko gidariak

Gero eta pisu handiagoa hartzen ari den figura berria da. Irteerak hobeto prestatu ahal izateko, gero eta jende gehiagok, klubean inplikazio handiagoa bilatu gabe, gure urteko egutegiko irteeraren bat prestatzen du. Baldintza bakarra da klubak prestatu duen prestakuntza erraz bat jasotzea (argazkian, klubeko lokalean gidarientzat antolatutako saioaren unean).

Figura berri honi esker, irteerak arrakasta-berme handiagoarekin prestatzen ari gara, eta ateak irekitzen dizkiogu bazkideak hurbildu daitezen eta irteera bat nola prestatu eta gidatu jakin dezaten.

Bazkideak

Gure lehentasuna bazkideak dira ikasturte honetan ere. Horretarako, federazio-lizentzien kudeaketa errazten dugu, hala eskatzen dutenentzat, eta, klub gisa, jarduerak eskaintzen jarraitzen dugu, baita eskura dugun mendiko materiala.

Aurtengo bazkide kopurua 116ra igo da, eta gero eta gehiago dira bazkide diren eta ez diren pertsonen parte-hartzea irteeretan.

Illo berean jarraituko dugu jende gehiagorekin partekatu ahal izateko, eta aldi berean, klubeko lagun egin nahi duten mendizaleengan hurbiltzeko.



Materiala

Bastoiak

Bastoiak oso lagungarriak dira mendizaleentzat, eta, beraz, lau bastoi pare horiek hainbat egunez eman zaizkie klubeko hiru erabiltzaileei.

Mendiko botak

Irteeretarako oinetako egokiak ez dituztenentzat, hainbat tamainatako bota pare batzuk ditugu. Pare horiek unean-unean jarri ahal izango ditugu, laguntzeko.

Kanpin-denda

Klubak kanpin-denda bat du bazkide eta bazkideei eskaintzeko. Aurten ere gehien eskatzen den materiala da, eta denboraldi honetan 15 aldiz erabili da.



Elur-erraketak

2021-2022 ikasturte honetan, klubak bi erraketa pare erosi ditu, bazkideek jarduera hobetu edo horretan has daitezen. Aitzeder Mendi Taldetik animatzen zaituztegu.



EKONOMIA

Aitzeder Mendi Taldearen 2021-2022 ekitaldiko balantzea eta emaitzen kontua.

Klubeko Batzar Orokorrak onartu ditu Kontuak.

BALANTZEA

2022ko abuztuaren 31n, 2021ko abuztuaren 31rekin konparatuta.

ACTIVO	31/08/2022	31/08/2021
A) ACTIVO NO CORRIENTE	843,32 €	735,08 €
I. Inmovilizado intangible		
II. Bienes del Patrimonio Histórico		
III. Inmovilizado material	153,32 €	45,08 €
IV. Inversiones inmobiliarias		
V. Inversiones en entidades del grupo y asociadas a largo plazo		
VI. Inversiones financieras a largo plazo	690,00 €	690,00 €
B) ACTIVO CORRIENTE	1.095,48 €	267,69 €
I. Existencias		
II. Usuarios y otros deudores de la actividad propia	0,00 €	0,00 €
III. Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar	196,77 €	0,00 €
IV. Inversiones en entidades del grupo y asociadas a corto plazo		
V. Inversiones financieras a corto plazo	0,00 €	0,00 €
VI. Periodificaciones a corto plazo		
VII. Efectivo y otros activos líquidos equivalentes	898,71 €	267,69 €
TOTAL ACTIVO (A + B)	1.938,80 €	1.002,77 €

PATRIMONIO NETO Y PASIVO	31/08/2022	31/08/2021
A) PATRIMONIO NETO	1.410,54 €	918,30 €
A-1) Fondos propios	1.410,54 €	579,27 €
I. Fondo social	579,27 €	271,93 €
1. Fondo social	579,27 €	271,93 €
2. (Fondo social no exigido)		
II. Reservas	0,00 €	451,02 €
III. Excedentes de ejercicios anteriores	0,00 €	0,00 €
IV. Excedente del ejercicio	831,27 €	-143,68 €
A-2) Subvenciones, donaciones y legados recibidos	0,00 €	339,03 €
B) PASIVO NO CORRIENTE	0,00 €	0,00 €
I. Provisiones a largo plazo		
II. Deudas a largo plazo	0,00 €	0,00 €
1. Deudas con entidades de crédito		
2. Acreedores por arrendamiento financiero		
3. Otras deudas a largo plazo	0,00 €	0,00 €
III. Deudas con entidades del grupo y asociadas a largo plazo		
V. Periodificaciones a largo plazo		
C) PASIVO CORRIENTE	528,26 €	84,47 €
I. Provisiones a corto plazo		
II. Deudas a corto plazo	0,00 €	0,00 €
1. Deudas con entidades de crédito		
2. Acreedores por arrendamiento financiero		
3. Otras deudas a corto plazo	0,00 €	0,00 €
III. Deudas con entidades del grupo y asociadas a corto plazo		
IV. Beneficiarios-Acreedores	528,26 €	84,47 €
V. Acreedores comerciales y otras cuentas a pagar	0,00 €	0,00 €
1. Proveedores		
2. Otros acreedores	0,00 €	0,00 €
VI. Periodificaciones a corto plazo		
TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO (A + B + C)	1.938,80 €	1.002,77 €

EMAITZEN KONTUA

2021-2022 ikasturtea, aurrekontuarekin alderatuta.

	Presupuesto 2021-2022	Ejecutado 2021-2022
TOTAL GASTOS	7.577,80 €	8.630,14 €
FUNCIONAMIENTO	390,00 €	529,10 €
Web	60,00 €	155,50 €
Otros servicios web	0,00 €	131,76 €
Teléfono móvil	30,00 €	30,60 €
Terminal móvil	20,00 €	8,43 €
Apartado postal	80,00 €	73,00 €
Material de oficina, papelería	10,00 €	5,00 €
Correos y mensajería	10,00 €	0,00 €
Viajes	30,00 €	0,00 €
Gastos bancarios	150,00 €	121,61 €
Otros gastos de funcionamiento	0,00 €	3,20 €
COMUNICACIÓN	20,00 €	0,00 €
Fotocopias	10,00 €	0,00 €
Tarjetas buzones	10,00 €	0,00 €
ACTIVIDADES	1.560,00 €	931,92 €
Salidas	1.500,00 €	849,32 €
Concurso "mendizale del año"	0,00 €	0,00 €
Concurso fotografía	0,00 €	0,00 €
Aniversario	0,00 €	0,00 €
Asamblea	60,00 €	49,30 €
Otras actividades	0,00 €	33,30 €
MATERIAL	812,80 €	633,18 €
Botas de monte	0,00 €	0,00 €
Tienda de campaña	10,00 €	0,00 €
Walkie-talkies	32,80 €	32,90 €
Libros y mapas	0,00 €	0,00 €
Botiquín	20,00 €	4,40 €
Otro material	750,00 €	595,88 €
MERCHANDISING	291,00 €	0,00 €
Camisetas	291,00 €	0,00 €
FEDERACIÓN	4.350,00 €	6.006,60 €
Licencias	4.200,00 €	5.856,60 €
Cuota FEDME	150,00 €	150,00 €
APORTACIONES	154,00 €	528,26 €
2% cooperación	154,00 €	189,23 €
Otras ayudas		339,03 €
OTROS GASTOS	0,00 €	1,08 €
Gastos extraordinarios	0,00 €	1,08 €

	Presupuesto 2021-2022	Ejecutado 2021-2022
RESULTADO EJERCICIO	122,20 €	831,27 €


	Presupuesto 2021-2022	Ejecutado 2021-2022
TOTAL INGRESOS	7.700,00 €	9.461,41 €
INGRESOS PROPIOS	2.850,00 €	2.794,00 €
Cuotas de socios	2.250,00 €	2.770,00 €
Venta de merchandising	600,00 €	24,00 €
Tramitación de licencias	0,00 €	0,00 €
ACTIVIDADES	500,00 €	275,00 €
Salidas	500,00 €	275,00 €
Préstamo de materiales	0,00 €	0,00 €
FEDERACIÓN	4.200,00 €	5.856,60 €
Licencias	4.200,00 €	5.856,60 €
SUBVENCIONES	150,00 €	196,77 €
FVM	150,00 €	196,77 €
OTROS INGRESOS	0,00 €	339,04 €
Donativos	0,00 €	339,03 €
Ingresos financieros	0,00 €	0,00 €
Ingresos extraordinarios	0,00 €	0,01 €

	Presupuesto	Ejecutado
INVERSIONES	182,00 €	149,57 €
Terminal móvil	100,00 €	50,57 €
Walkie-talkies	82,00 €	99,00 €

	2020-2021	2021-2022
CUOTA DE SOCIO	0,00 €	25,00 €

Gizartean eta ingurumenean duen eragina

Ingurumen-inpaktua



Eragin soziala

Eragin sozialari dagokionez aipatu beharrekoa:

Klubaren banku-entitatea Fiare Banca Ética da, printzipio etikoei jarraituz ekonomia errealean bakarrik inbertitzen duen bankua. Gure eragiketen %100 banku etikoko entitate horrekin egiten da.

Klubaren estatutuen arabera, aurrekontuaren %1 gutxienez garapenerako lankidetzaren proiektuetarako erabiliko da. 2021-2022 ekitaldian, aurrekontuaren %2 onartu zen, eta 189,23€ Itaka-Eskolapios Fundazioak erabiliko ditu, klubaren batzarrak hala erabakita.

Ekonomia sozial eta solidarioari laguntzen diogu: telefonia mugikorreko gure hornitzailea "Somos Conexión" da, ekonomia sozialaren printzipioei jarraitzen dien telekomunikazio-kooperatiba.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz arduratzen gara: etengabe neurtzen eta ahalegintzen gara, klubeko maila guztietan emakumeak gero eta gehiago egon daitezen.

KLUBEKO BERDINTASUN ADIERAZLEAK

	2020-2021		2021-2022	
	Emakumeak	Gizonak	Emakumeak	Gizonak
Irteeretako asistentzia	-	-	118	129
Irteeretako asistentzia (%)	-	-	48%	52%

Bazkideak	36	46	56	60
Bazkideak (%)	44%	56%	48%	52%

Bazkide federatuak	15	28	26	34
Bazkide federatuak (%)	35%	65%	43%	57%

Batzordeko kideak	1	6	2	5
Batzordeko kideak (%)	14%	86%	29%	71%

Zuzendaritza Batzordeko kideak	1	4	0	4
Zuzendaritza Batzordeko kideak (%)	20%	80%	0%	100%

Aitzeder Mendi Taldeak federazio eta erakunde hauetan **parte hartzen du:**

	Baldintza	Noiztik
Bizkaiko Mendi Federazioa	Federazio kidea	2017
Euskal Mendizale Federazioa-Federación Vasca de Montaña	Federazio kidea (lurraldearen arabera)	2017
Somos Conexión Sociedad Cooperativa Catalana Limitada	Bazkidea	2017
Banca Popolare Etica scpa (Fiare Banca Ética)	Bazkidea	2021
Federación Española de Deportes de Montaña y Escalada (FEDME)	Bazkidea	2022

Club de Montaña Aitzeder Mendi Taldea

Apartado Postal, 15 - 48080 BILBAO

693 772 909

www.aitzedermt.org